

Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %8,7 hazi zen 2007ko bigarren hiruhilekoan


Eraikuntza %8,0an hazi zen eta Obra Zibila %10,5ean

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2007ko bigarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan %8,7 hazi zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntzako jarduera, 2006ko hiruhileko beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2007ko bigarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %1,5 hazi zen, 2007ko lehenengoaren aldean

Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua

% hazkundera



Iturria: Eustat.

2007ko bigarren hiruhilekoan eraikuntza-sektorearen bilakaera gehiago oinarritu zen *obra zibila* azpisektorean, *eraikuntza* azpisektorean baino. Izan ere, lehenak urte arteko %10,5eko igoera izan zuen, eta bigarrenak, berriz, %8,0koa.

Hiruhilekoen arteko terminoetan, 2007ko bigarren hiruhilekoko sektorearen jarduera urte bereko lehenengo hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta, *Eraikuntzako* azpisektoreak %1,2ko bilakaera positiboa izan zuen eta *Obra Zibilekoak* %2,2koa.

2007ko bigarren hiruhilekoan, eraikuntzaren sektoreko enplegua %0,2 gehitu zen, datu gordinetan, aurreko urteko aldi berdinen aldean, eta %0,2ko hiruhileko arteko igoera izan zuen, baita ere, urte bereko lehenengo hiruhilekoaren aldean.

Taula: 2007ko 2. hiruhilekoa. Euskal AEko Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	2.hir.07/2.hir.06	At/At-1 (1)	2.hir.07/1.hir.07	1.hir.07/4.hir.06
Produkzioaren indizea	8,7	9,5	1,5	0,7
Eraikuntza	8,0	9,4	1,2	2,5
Obra zibila	10,5	9,6	2,2	-3,2
Landunen indizeak	-	-	0,2	-0,3

(1) t urteko urtarriletik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp